

FUNTSEZKO ELKARTEAK

Forma juridiko bezala SL aukeratu dugu ematen dizkigun abantailengatik.

Guk Jambunina enpresak Sozietate Mugatu bezala ireki dugu ez daukagulako diru askorik eta Sozietate mugatu bat sortzeko behar den kapitala bakarriok 3.000€ direlako. Gainera, irudi profesionalagoa ematen digu. Enpresa lau lagun artean sortu dugunez, ondo datorkigu legeak adieraztea pertsona bakarra dela beharrezkoa SL bat sortzeko. Gainera SL-an bazkideen erantzukizuna solidarioa da haien artean, eta jarritako kapitalara mugatuta; beraz, ez dugu gure ondare pertsonalekin erantzuko zorren aurrean

Enpresa hau 4 lagunen artean hasi genuen, gutako bakoitzak funtsezko baliabide bat eskaintzen zuen; Ugaitzek esperientzia zuen obran eta eraikuntzaren mundua barrutik ezagutzen zuen, Eli komertzial bezala lan eginga zen, beraz, salmentaren eta erosketaren jakitun zen, Ander informatikan aditua zen eta, beraz, online azpiegitura guztia garatzea erraza zen berarentzat, Asierrek dirua jarri zuen bi urte lan egin zuelako Mercadonan kutxan, irabazitako diruarekin eta prestamo batekin diru guztia ipini zuen.

Ez zaigu praktikoa egiten jarduera guztiak guk geuk egitea, eta, horregatik, aliantza desberdin batzuk ditugu:

- SeguriPlus, laneko segurtasunari buruzko aholkularitza ematen digun enpresa bat da. Helburu horrekin, lanaren ondoriozko arriskuak prebenitzeko beharrezkoak diren neurriak aplikatzea eta jarduerak garatzea da.
- MaquinariasPaco makina ezberdinak alokatzen dituen enpresa bat da, alokatzen dizkiogun produktuen artean; hondeamakinak, zementu-kamioiak, dragak, oladura-jartzaileak, traktoreak...
- ArquitectosMaria erreformak planifikatzen eta garatzen laguntzen digu. Askotan, baserri bat eraberritzeko orduan, begi hutsez ikusten ez diren egiturazko kalteak egon daitezke, eta, beraz, aditu baten laguntza beti ondo etortzen da.
- DiseñosConchita laguntzen digu behin etxebizitza eraberritzen denean hura estetikoia izaten, hau da, "polita" ikusten (diseinatzaileek bezeroen eskaera pertsonalizatuekin lan egiten dute askotan)
- GorkaPublik publizitate-kanpainak antolatzen ditu guretzat, bezero berriengana iritsi ahal izateko. Haien planifikatzen eta egiten dituzte gero gure web orrian, irratian... ikusiko diren iragarkiak.

